

Comercial Aibak **"2020-2021 ikasturtean Covid19ren aurrean antolatze eta, higiena eta osasuna sustatzeko neurri buruzko jarraibideetan"** oinarritutako antolaketa jarraibideak prestatu ditu, non jangelari buruzko gomendio batzuk jasotzen dira.

Jangelari buruzko gomendioak

A. Eskolako instalazioak ikasle kopuruaren arabera antolatu beharko dira arriskuak murrizteko. Horretarako, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Ikasleen taldeak finkoak izango dira.
- 1,5 metroko distantzia egongo da taldeen artean (HH eta LH).
- Bigarren hezkuntzako ikasleen kasuan, ikasleen arteko 1,5 metroko distantzia errespetatu beharko da.
- Era berean, ahaleginak egingo dira jangelako lankideen eta taldeen arteko distantzia mantentzeko.

B. Distantziako neurriak aplikatu ahal izateko, eskolak jangelaren ohiko espazioaz a parte, erabil daitezkeen beste espazioen eta gelen antolaketa baloratuko du.

C. Ikasleek eta langileek erabiltzen dituzten tresnak (mahai-tresnak, edalontziak, etab.) eta sukaldeetan erabiltzen den materiala ontzi-garbigailuan garbitu behar dira, ohiko moduan. Ez da beharrezkoa gomazko eskularru esterilak erabiltzea.

D. Autozerbitzua ahalik eta ikasle gutxientzako mantendu beharko da. Autozerbitzua mantenduz gero, Aibakeko langileak izango dira kurtso ezbedinei platerak zerbitzatzeko dituztenak.

E. Ikasleei ez zaie utziko pitxarretako ura zerbitzatzeko; begiraleak egingo du, eskuzapi batez lagunduta. Erabili ohi diren gatzontziak, olio-botilak eta ozpina kenduko dira, eta zerbitzuaren unean emandako dosi bakarrek ontzietan ordezkatuko dira.

F. Mahai-zapiak eta ezpainzapiak erabiltzen badira, erabili eta botatzeko modukoak izan behar dute, eta zerbitzatzeko unean jarri behar dira. Tapa duen sakarontzi batean botako dira. Paperezko ezpainzapiak eta mahai-zapiak kendu ondoren, eskuak garbitzea komeni da.

G. Jangelako, sukaldeko eta komunitateko sarreretan eta irteeretan soluzio alkoholikoa eskeiniko da.

H. Sukaldeko langileek behar bezala jantzita egon beharko dira elikagaiak ez kutsatzeko, eta lan ordutegi guztian zehar maskarak erabili beharko dituzte. Ikasleak zaintzeaz arduratzen diren pertsonen eskuak maiz garbitu eta desinfektatu dituzte.

I. Manipulatuzaileentzako eta ikasleentzako kartelak zintzilikatuko dira jangelan: distantziak mantendu beharra, maskarillak dagokion bezala erabili beharra, garbiketa/desinfekzioaren maiztasuna, etabarreko ohartarazpenak eginez.

J. Garbitzeko eta desinfektatzeko zailak diren elementuak kenduko dira (beharrezkoak ez diren apaingarriak eta beste elementuak).

K. Sukaldean lan egiteko moduaren berrantolakuntza: Funtsezkoak ez diren pertsonetara, sukaldeko, biltegietako eta jangelako eremuetara sartzea debekatuko zaie, eta beharrezko langileak eta hornitzaileak soilik sartu ahal izango dira.



Aurkezten diren antolaketa berriaren neurriak, eskolako zuzendaritzarekin adostuko direnak, ikasturtea hasieratik ezartzeko burutu dira eta aldatuz joan daitezke kurtsoan zehar.

A. Jangela txandaka antolatu beharko da, taula honetan aurkezten diren baldintza hauek betetzeko moduan:

IKASLEEN KOADROA, ETAPA ETA IKASTURTEEN ARABERA


Adina	Etapa	Zikloa	Kurtsoa	Ikasle kopurua	Totalak	Betebeharrak
0	HAUR HEZKUNTZA	1º	0 urte			Geletan bazkaldu dezakete, gutxieneko distantziarik gabe, edo jangelan bazkaldu dezakete, talde bakoitzaren artean 1,5 m-ko tartea utzita.
1			Urte 1			
2			2 urte			
3		2º	3 urte			
4			4 urte			
5		5 urte				
6	LEHEN HEZKUNTZA	1º	LH1			Taldeka bazkaldu ahal dezakete, talde bakoitzaren artean 1,5 m-ko tartea utzita
7			LH2			
8		2º	LH3			
9			LH4			
10		3º	LH5			
11			LH6			
12	BIGARREN HEZKUNTZA	1º	DBH1			1,5 m-ko mahaikideen arteko tartea
13			DBH2			
14		2º	DBH3			
15			DBH4			
16	BATXILLERGOA		1º			1,5 m-ko mahaikideen arteko tartea
17			2º			

Jangelaren aforoa ez bada nahikoa (ikasleen arteko distantziari buruzko araua betetzearen ondorioz), ikastetxeak ikasle batzuk beste kokalekuetan bazkaltzeko posibilitaterik dagoen aztertuko du.

Txanden artean, gure langileek bazkaltzeko erabiltzen diren espazioak aireztatuko dituzte, garbiketa eta desinfekzio lanak egiten dituzten bitartean.

Zentroak jangelako eta komunetako sarrera eta irteeretan soluzio alkoholikoa eskeintzeko aukera aztertuko du.

Baliteke jantokia muntatzeko ardura duten pertsonen lanaldia 10 minutuz luzatu behar



izana, zuzenean mahai gainean muntatzeko (Autozerbitzua gehien bat erabiltzen zuten eskoletan, handik pasatzen ziren ikasle kopurua murrizteko).

Aibakeko langileek behar bezala jantziko dituzte beharrezkoak diren babesteko ekipamenduak (maskarillak), kontaktu-elementuak eta pertsonak kutsatzeko arriskua murrizteko.

Jangelan eta sarbideetan kartelak jarriko dira, ikasleei eskuak garbitzeko, distantziak mantentzeko, etab. gomendioak emanez.

B. Jangelako zerbitzua (HH + LH):

A. Ikasleek eskuak desinfektatuko dituzte gel hidroalkoholikoarekin, jangelan sartu aurretik eta irtetean. LHTik aurrera, ikasleek beren maskara identifikatuta eta behar bezala jarrita eraman beharko dute uneoro, bazkaltzeko denboran izan ezik.

B. Begiraleek pitxarretatik emango diete ura ikasleei, eskua altsatu eta eskatu ondoren.

C. LH3ra arte, bazkaria begiraleek zerbitzatuko dute mahaian, ikasleak eseri baino lehen. LH4 eta LH6 bitartean, ikasleek mahaiaren amaieran aurkituko dituzte bandejak/platerak pilatutak, eta, eseri ondoren, jantokiko langileek banatu eta zerbitzatuko diete janaria.

D. Plateren bat errepikatzeke nahi izanez gero, ikasleak eskua altxatuko du eta begirale batek zerbitzatu arte itxarongo du.


E. Erabilera komuneko produktu guztiak taldeko arduradunari eskatuko zaizkio (monitorea), hala nola olio, ketxupa, mahonesa, etab.

C. Autozerbitzu-sistema (DBH):

Eskolak, autozerbitzuan zehar langileen eta ikasleen arteko manparak jartzeko aukera baloratuko du.

A. Ikasle bakoitzak jantokian sartzeko unean, maskara identifikatuta eta behar bezala jarrita eramango du (bere lekuan eserita egon arte), eskuak garbitu berriak eramango ditu, eta soluzio alkoholikoa eskeiniko zaio autozerbitzu hasieran eta bukaeran.

B. Ikasle bakoitzak bere bandeja eta mahai-tresnak hartuko ditu, pilatutakoak ez ukitzen saiatuz.



C. Gure langileek lehenengo platera, bigarren platera, postrea, ogia eta erabilera komuneko elementuak (ketxup, olio, ozipina) zerbitzatuko dituzte.

D. Eserterakoan, ura edalontzietan egongo da. Ur gehiago behar dutenek, eskua altxatuko dute eta begirale batek zerbitzatu arte itxarongo dute.

E. Plateren bat errepikatzeko eskatuz gero, ikasleak eskua altxatuko du eta begirale batek zerbitzatu arte itxarongo du.

G. Bukatzen dutenean, ikasleek mahaitik altxatuko dira maskara behar bezala jarrita dutela, eta eskuak gel hidroalkoholikoarekin higienizatuko dituzte jangelatik irten aurretik.

D. Sukaldeko zerbitzua:

A. Instalazioetarako sarbidea zerbitzua garatzeko funtsezkoak diren langileei mugatuko zaie.

B. Elikagaien segurtasunaren arloko araudi osoa + Covid-19ren inguruan eguneratzen den araudia beteko da.

C. Covid-19aren aurkako prebentzioari buruzko neurrien informazio kartelak jarriko dira sukaldean.



1) PARTEKATUTAKO ESPAZIOAK

Jangela txandaka beteko duten ikasle talde finakoak sortuko dira. Jangela bete ondoren irteera ordenatua izan dadin, bazkaltzen bukatu duten ikasleek, taldeko gainontzeko ikasleei itxaron beharko diete estankotasuna mantenduz. Hutsune libreak ez dira ikasle berriekin beteko txanda bukatu arte.

Txanda bakoitza amaitutakoan, mahaiak eta aulkiak garbitu eta desinfektatu behar dira, eta ondoren, hurrengo txandari dagokion ikasle kopurua sartuko da berriro.

Aireztapena, garbiketa eta desinfekzioa txanden artean egingo dira, jangela hutsik dagoenean.


Egungo plantillarekin egin daitezken txandak, adibide gisa:

Ordutegiak		Denbora	Aktibitatea	Ikasleak	Kopuruak
12.20 h	12.30 h	10 min.	Garbiketa eta desinfekzioa / Muntaketa		
12.30 h	13.00 h	30 min.	LEHENENGO TXANDA	Haur Hezkuntza LH1-3	
13.00 h	13.10 h	10 min.	Garbiketa eta desinfekzioa		
13.10 h	13.40 h	30 min.	BIGARREN TXANDA	LH 4-6	
13.40 h	13.50 h	10 min.	Garbiketa eta desinfekzioa		
13.50 h	14.20 h	30 min.	HIRUGARREN TXANDA	DBH	
14.20 h	14.30 h	10 min.	Garbiketa eta desinfekzioa		
14.30 h	15.00 h	35 min.	LAUGARREN TXANDA	Batxillergoa	
15.00 h	15.30 h		Garbiketa, desinfekzioa, materiala eta tresnak biltzea		

0 eta 1 urte bitarteko haurrek beren geletan bazkaltzen jarraituko dute, orain arte bezala.

Ate bakarra duten jangeletan, sartzen diren lehenengo ikasleak azkenenak ateratzen izango dira, eta jangelaren atzekaldean eseriko dira. Jangelatik ateratzeko alderantzizko irteera egingo da, hau da, lehenik atetik gertuen dauden ikasleak jolastokira aterako dira, talde bakoitzaren segurtasun distantzia eta estankotasuna mantenduz.

Ikastetxeak jolastokiko partzelak ezarriko ditu, talde bakoitza esleituta egon dadin, eta horrela taldeen bitarteko gurutzapenak saihestuko dira. Aibakeko langileek partzela horiek zaintzeko behar den distantzia ezarriko dute, ahal den neurrian talde bakoitzaren estankotasuna haustea saihestuz.



2) GEHITUTAKO ESPAZIOAK

Aukera honetan, hainbat ikaslek beste lekuetan bazkaldu dezaten proposatzen da (beren gelan bertan, frontoian, etab.).

Horretarako, beharrezkoa litzateke:

- Neurri egokiko mahaiak eta aulkiak eramatea. Baita bandejak/platerak, mahai-tresnak, edalontziak, ur pitxarrak, 1º+2º platerak, ogia, eta postrea ere (karroetan).
- Pedala duen zabor-ontzi bat prestatzea.
- Zerbitzua bukatzerakoan material hori guztia jaso eta garbiketa gunera eramatea.
- Zerbitzu horrekin batera, errendimendu osoko jantokia ere martxan egongo da.
- Txandak antolatu behar izanez gero, jangela nagusiaren funtzionamentua izango du.



3) GARRAIATUTAKO ENTREGA PROTOKOLOA

Aibak-eko langileek gauzatu beharreko neurriak bazkaria garraiatzeko eta eskolan banatzeko ondorengoak izango dira:

- Ahal den ainean, bazkaria eskolako eraikinetik kanpo entregatu beharko da, garraio-arduradunak barnean sartu ez daitezten.
- Banatzaileak hidroalkohola erabiliko du banaketa bakoitzean. Era berean, eskaria jasotzen duen pertsonak, bere eskuak eta jasotzen dituen termoen eskulekuak desinfektatu beharko ditu.
- Maskara erabil beharko dute banaketaren mementuan, baita garraioaren barne bi pertsona baino gehiagok banaketa aldi berean egiten badute ere.
- Banatzeko mementuan, bazkaria jasotzen duen pertsonarekin 1,5 metrotako distantzia mantenduko da.

